ZARAUZKO UDALA

PROMOCIONES SALBIDE S.L.

| ZOZKETA | SORTEO |
|---|---|
| **ZARAUZKO "SALBERDIN" 10-2 AREAKO BIRPARTZELAZIO-PROIEKTUAREN R-10, R12, R-11 ETA R-13 PARTZELETAN ERAIKIKO DIREN 139 UDAL ETXEBIZITZA TASATU (UET) ETA HAIEI LOTUTAKO ELEMENTUAK, JABETZA-ERREGIMENEAN ETA ZOZKETAREN BIDEZ ESLEITZEKO PROZEDURA.** | **PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN, MEDIANTE SORTEO, DE 139 VIVIENDAS TASADAS MUNICIPALES (VTM) Y ANEJOS EN REGIMEN DE PROPIEDAD, A DESARROLLAR EN LAS PARCELAS R-10, R-11, R12 Y R-13 DEL PROYECTO DE REPARCELACIÓN DEL ÁREA 10-2 "SALBERDIN" DE ZARAUTZ.** |
| **Jarraibideak.-** | **Instrucciones.-** |

| | |
|---|---|
| I. **Sarrera** | **I. Introducción** |
| Zarauzko Udalak, 2023ko azaroaren 8ko Alkatetzaren Dekretu bidez (2371 zk.) onartu egin zituen aipatutako prozedurari dagozkion deialdia eta oinarriak, hauek argitaratu zirelarik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2023ko azaroaren 17an (222 zkia.). | El Ayuntamiento de Zarautz aprobó mediante Decreto de Alcaldía de 8 de noviembre de 2023 (nº 2371) la convocatoria y las bases del procedimiento de referencia y fueron objeto de publicación en el boletín oficial de Gipuzkoa con fecha 17 de noviembre de 2023 (nº 222). |
| **II. Argitaratuta behin betiko zerrendak eta eskaera bakoitzari ausazko zenbaki bat esleituta (7 art.).** | **II. Publicadas las listas definitivas y asignadas a cada participante un número al azar (art. 7).** |
| Parte-hartzaileen behin betiko zerrendak Zarauzko Udalaren eta Sustatzailearen webguneetan argitaratu dira, eskaera bakoitzari ausazko zenbaki bat esleitu zaiolarik. | Los listados de participantes definitivos se han publicado en los tablones y en las páginas web del Ayuntamiento de Zarautz y de la Promotora, asignándoseles a cada una de las solicitudes un número al azar. |
| Zozketarako aintzat hartuko da egiaztatzen den bizikidetza-unitateko kide kopurua. | El número de miembros acreditado de la unidad convivencial será tomado en cuenta a los efectos del sorteo. |


Etxebizitza bulegoa
etxebizitza@zarautz.eus - Salegi kalea, 14 20800 Zarautz Gipuzkoa Tel.: 943 005129

| | |
|---|---|
| **III. Zozketatuko diren etxebizitzen zerrendak argitaratuta. (14.1. art.).** | **III. Publicados los listados de las viviendas objeto del sorteo (art. 14.1.).** |
| Eraikiko diren etxebizitzak logela kopuruaren arabera sailkatu dira, handienetik txikienera. Kode alfanumerikoak logela gehien dituen eta altuera handiena duen (pisurik altuena) etxebizitza ez egokitutik hasita emango dira, logela gutxien eta altuera txikiena duen (pisurik baxuena) etxebizitza egokituraino, 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 34.3 artikuluan ezarritakoarekin bat. | Todas las viviendas a edificar en las parcelas han sido agrupadas por número de dormitorios en orden decreciente. Los códigos alfanuméricos se atribuirán a partir de la vivienda no adaptada de mayor número de dormitorios y altura (piso más alto) y terminando por la vivienda adaptada de menor número de dormitorios y altura (piso más bajo), y ello de conformidad a lo establecido por el artículo 34.3 de la referida Orden de 15 de octubre de 2012. |
| **IV. Zozketa (14.1. art.)** | **IV. Sorteo (art. 14.1.)** |
| Zozketa ekitaldia Modelo Aretoan, 2024ko martxoaren 6an, 18:00an, Zarauzko notarioaren aurrean egingo da. Zozketa streaming bidez (online) jarraitu ahalko da, Zarauzko Udalaren eta Sustatzailearen webguneetan. | El sorteo se celebrará día 6 de marzo de 2024, a las 18:00 horas, en Modelo Aretoa ante el Notario de Zarautz y se podrá seguir en streaming (online) a través de la página web del Ayuntamiento de Zarautz y de la Promotora. |
| Zozketa jarraibide hauen arabera gauzatuko da: | El sorteo se desarrollará según las siguientes indicaciones: |
| Egokitu gabeko etxebizitzen zozketei dagokionez, eskaera beste bola sartuko dira loteria-ontzian, bakoitza zenbaki batekin. Hala, bolak aterako dira (zozketatu beharreko etxebizitza egokitu gabeen kopurua). Ateratako bolen zenbakia duten parte-hartzaileek, ondoren zehazten den moduan, etxebizitza bana eskuratzeko aukera izango dute. | Respecto a los sorteos de las viviendas no adaptadas, constando el bombo con el mismo número de bolas que solicitudes y estando cada una de ellas numeradas, se procederá a la extracción de las bolas (mismo número que viviendas no adaptadas a sortear), resultando agraciados los participantes cuyo número coincida con el de la bola y que podrán adquirir una vivienda tal y como se detalla seguidamente. |
| SALBERDIN eremuan etxebizitzak esleitzeko 2 prozedurentzat **(R12-AO45UET eta R10, R11 eta R13-AB94UET**), zozketarako deialdi bakarra egingo da. Halaber, 2 zozketak ekitaldi berean egingo | El sorteo correspondiente a los 2 procedimientos de adjudicación de SALBERDIN (**R12-45VTMRG y R10, R11, R13-94VTMRE)** se realizará mediante una única convocatoria. Por lo tanto, ambos |


Etxebizitza bulegoa
etxebizitza@zarautz.eus - Salegi kalea, 14 20800 Zarautz Gipuzkoa Tel.: 943 005129

| | |
|---|---|
| dira eta 2 prozeduretan izena eman duten pertsona guztiek bi zozketetan parte hartuko dute.<br><br>Ondorioz, norbaiten zenbakia 2 zozketetan zorteduna balitzateke, bietako bati uko egin beharko lioke. Kasu honetan, uko egiteak eragiten dion etxebizitza, itxaron zerrendan dagoen pertsonaren esku jarriko da. | sorteos se celebrarán en el mismo acto y todas las personas inscritas en los listados de los 2 procedimiento podrán participar en ambos sorteos.<br><br>En el supuesto de resultar agraciados en ambos sorteos, la/s persona/s agraciada/s deberá/n renunciar a una de las viviendas. En este caso, la vivienda afectada por la renuncia se pondrá a disposición de la primera persona/s de la lista de espera. |
| V. **Etxebizitzak izendatzea (14.2. art.)**<br><br>Hurrengo fase batean, etxebizitzak esleituko dira, notario aurrean, publikoa izango ez den egintza batean, etxebizitzen logela kopurua bizikidetza-unitate bakoitzaren beharretara egokitzeko irizpidea aintzat hartuta, 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 62. artikuluan ezarritakoarekin bat.<br><br>Hau da, zozketaren ondorioz sortutako zerrendak berriro antolatuko dira bizikidetza unitate bakoitzeko kide kopurua kontuan hartuz. Zerrenda hauek izango dira **BEHIN BETIKO ZERRENDAK** bezala hartuko direnak eta bakoitzari etxebizitza zehatza izendatzeko erabiliko direnak ETXEBIZITZEN ZERRENDEn arabera, logela kopurua eta solairua kontuan hartuz. | **V. Asignación de las viviendas (art. 14.2.)**<br><br>En una fase posterior se asignarán las viviendas ante notario, en un acto no público, teniendo en cuenta el antedicho criterio de adecuación del número de dormitorios de las viviendas a las necesidades de las unidades convivenciales, conforme establece el artículo 62 de la Orden de 15 de octubre de 2012.<br><br>Es decir, las listas de personas agraciadas en los sorteos se reordenarán atendiendo al número de miembros de cada unidad convivencial y constituirán las **LISTAS DEFINITIVAS** que servirán para asignar las viviendas según los LISTADOS DE VIVIENDAS ordenadas según el número de dormitorios y planta. |
| **VI. Itxaron-zerrenda (15. art.)**<br><br>Zozketa bukatzean, egintzan bertan, zozketan parte hartu duten baina etxebizitzarik eskuratu ez duten pertsona edo bizikidetza-unitate guztien zerrendak egingo dira, loteria-ontzi bakoitzetik ateratako azken zenbakitik aurrera. | **VI. Lista de espera (art. 15)**<br><br>Finalizado el sorteo y en el mismo acto, se confeccionarán las listas de espera con todas las personas o unidades convivenciales que hubieran participado en él sin haber resultado agraciadas, elaborándose a partir del último número que haya resultado agraciado en cada sorteo. |


Etxebizitza bulegoa
etxebizitza@zarautz.eus - Salegi kalea, 14 20800 Zarautz Gipuzkoa Tel.: 943 005129

**VII. Familia ugari batentzat izango den etxebizitza** (Udal etxebizitza tasatua arautzen duen ordenantzaren 4.1. artikulua).

90 metro karratu erabilgarri baino gehiagoko azalera duten etxebizitza tasatuak, derrigorrez familia ugari bati esleituko zaizkie. Zozketan ateratako bolen zenbakia duten parte-hartzaileen artean ez balego familia ugaririk, esleipena egingo litzaioke, itxaron zerrenda jarraituz, famili ugariaren baldintza betetzen duen lehenengo bizikidetza unitateari. Aparteko kasu honetan, 15. Artikuluan aurreikusitako itxaron zerrenda aplikatu aurretik, **BEHIN BETIKO ZERRENDAn** azkena legoken bizikidetza unitateari esleitu beharko zaio etxebizitza.

**ETXEBIZITZAK IZENDATZEA**

| ETXEBIZITZEN ZERRENDA (14.1. art.) | BEHIN BETIKO ZERRENDA Zozketako onuradunak, bizikidetza unitatea kontuan hartuta (14.2. art.) | Bizikidetza Unitea kideak |
|---|---|---|
| Vivienda 1 | Zozketan parte hartzeko zenbakia ………… * Familia ugaria derrigorrez 90 metro karratu erabilgarri baino gehiagoko azalera badu (4 logelako etxebizitzetan) | …. |
| Vivienda 2 | Zozketan parte hartzeko zenbakia ………… | …… |
| Vivienda 3 | Zozketan parte hartzeko zenbakia ………… | … |

**VII. Vivivienda destinada a familia numerosa** (Artículo 4.1. de la Ordenanza reguladora de la vivienda tasada municipal).

Las viviendas tasadas de más de 90 metros cuadrados útiles de superficie se asignarán obligatoriamente a una familia numerosa. En el supuesto excepcional de que no figurara ninguna familia numerosa entre los agraciados en el sorteo, se deberán asignar a través de la lista de espera a la primera unidad convivencial que cumpla dicho requisito. En este caso y de forma extraordinaria, con anterioridad a la aplicación de la lista de espera regulada en el artículo 15, se deberá adjudicar una vivienda a la última unidad convivencial de la **LISTA DEFINITIVA.**

**ASIGNACIÓN DE VIVIENDAS.-**

| LISTADO DE VIVIENDAS (art. 14.1.). | LISTA DEFINITIVA<br><br>Agraciados en el sorteo ordenados por unidad convivencial (art. 14.2.). | Unidad Convivencial Nº miembros |
|---|---|---|
| 1 etxebizitza | Número participación sorteo ……..<br><br>* Familia numerosa obligatoriamente en el caso de viviendas de más de 90 metros cuadrados útiles (4 dormitorios) | ……. |
| 2 etxebizitza | Número participación sorteo …….. | ……. |
| 3 etxebizitza | Número participación sorteo …….. | …….. |

**Zarautzen, 2024ko otsailaren 20**



Etxebizitza bulegoa
etxebizitza@zarautz.eus - Salegi kalea, 14 20800 Zarautz Gipuzkoa Tel.: 943 005129